# AKITANIA-EUSKADI-NAFARROA EUROESKUALDEAREN BEKA

# AQUIMOB SOFTWAREA. IKASLEENTZAKO ERABILERA-GIDALIBURUA

aquimob.fr
Toutes les aides en un seul clic

Nouvelle-Aquitaine | Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco | Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra | LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre | ComUE d'Aquitaine

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea | Mondragon Unibertsitatea | Deusto | upna | Universidad de Navarra

**Sarrera:**

Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen LLETak beka bat jarri behar du abian europar eskualderako; Akitania Berriko unibertsitate eta zentroetara mugikortasuna sustatzea du helburu. Gradua, Masterra edo Doktoregoa ikasten ari diren Euskadiko hiru unibertsitateetako eta Nafarroako bietako ikasleentzat izango da.

Aquimoben bidez kudeatzen da beka hori. Akitaniako ikasleentzako mugikortasun-beka guztiak biltzen dituen on-line aplikazio bat da.

Akitania Berrian mugikortasun-aldi bat egin behar duten ikasleek (Euskal Herriko Unibertsitatekoek, Deustuko Unibertsitatekoek, Mondragon Unibertsitatekoek, Nafarroako Unibertsitate Publikokoek eta Nafarroako Unibertsitatekoek) eskaera bakarra egin behar dute www.aquimob.fr webgunean. Gidaliburu honetan, eskaria behar bezala aurkezteko laguntza guztia aurkituko dute.

## 1- ATARIRA SARTZEA

- **Diru-laguntza bat eskatzeko, honako webgune honetan sartu behar duzu: www.aquimob.fr**




**eta klik egin** 


Nire AquiMob espedientea entregatu, aldatu **estekan, goian eskuinaldean.**

## 2- ESKAERA-FORMULARIOA BETETZEA

### a) Identifikazioa:

- **Atarira sartu eta gero, akitaniar ikasleentzako informazioa agertuko da beti. Egin klik honetan:** 





*Deialdia irekita dago honako denboraldi honetan mugikortasun-aldia egin nahi duten ikasleentzat:*

*2017-2018 ikasturteko lehen seihilekoa.*

- **Horren ondotik, zure jatorrizko unibertsitatea aukeratu beharko duzu (EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatea) eta botoi hau sakatu:** Valider




- **Hurrengo orriak eskaria aurkezteko epeak gogorarazten dizkizu. Honako honetan egin klik:** Continuer




*Espedienteak* <u>*martxoaren 1etik maiatzaren 17ko*</u> 24:00ak arte *aurkez daitezke.*

*Eskaera bete eta aurkeztu eta gero, inprimatu eta bidali beharko duzu epea bukatu baino lehen.*

*Paperezko bertsioa zure jatorrizko unibertsitatera bidali beharko duzu, eskatutako ziurtagiriekin batera, 2017ko maiatzaren 24a baino lehen.*

- **Hurrengo orrian, zure burua identifikatu beharko duzu:**




*Abizenak*

*Izena*

*Ikasle-zenbakia (jatorrizko unibertsitatekoa)*

*Zure unibertsitateko pasahitza (jatorrizko unibertsitateko kudeatzaileak emango dizu)*

**Honako botoi honetan klik egin:** 


b) **Zure proiektu pedagogikoak:**

**Kasu gehienetan, proiektu pedagogiko bakarra izango duzu: Akitaniako unibertsitate/zentro batean mugikortasun-aldia egitea. Baina Akitanian leku bat baino gehiago interesatzen bazaizu (adb., Paue eta Aturriko Unibertsitatea eta Bordeleko Unibertsitatea), gehienez ere, hiru proiektu aurkeztu ahal izango dituzu.**




*Espediente bakoitzeko, gehienez ere, hiru proiektu aurkeztu ahal izango dituzu.*

*Hiruretako bat hartuko da kontuan (lehentasun handienekotzat jotzen dena).*

- **Zure proiektua sortzeko, proiektu berri bat gehitu behar duzu honetan klik eginez:** 

- **Hurrengo orrian, zure datu pertsonalei buruzko formularioa bete beharko duzu.**




Oso garrantzitsua da posta elektronikoaren helbidea ongi idaztea, jakinarazpen automatikoak eta onarpen- edo ezezpen-mezua jaso ahal izateko.

"Acheminement Ville-CP (Pays étranger)" jartzen duen lekuan, Espainiako posta-kodea eta hiria idatzi. Bestela, ezin da aurrera egin izen-ematean.

*Zure informazio pertsonalak mugikortasun-ikasturtean zehar*

*Mesedez, egiazta itzazu informazio hauek.*

*Okerrik bada, nahitaez eman beharko duzu horren berri zure unibertsitateko nazioarteko mugikortasunerako zerbitzuan, aldaketak egiteko atala erabiliz.*

*Asteriskoarekin markatutako eremuak nahitaez bete behar dira.*

*Formularioko "Suivant" botoia erabili, zure informazioak balioesteko, eta "Précédent", informazioak aldatzeko.*

*Abizenak:*

*Izena:*

*Ezkongabeko abizenak (frantsesentzat bakarrik)*

*Nazionalitatea: Espainiarra*

*Jaiotze-data (ee/hh/uuuu):* *Sexua: G E*

*Posta elektronikoa:*

*Telefonoa:*

*Herrialdea: Espainia*

*Helbide pertsonala:*

*Hiria:*

- **Hurrengo orrian, jatorrizko unibertsitateko datuei buruzko formularioa bete beharko duzu.**

Vos projets pédagogiques > **Fiche de candidature : Votre établissement d'Enseignement Supérieur d'origine**

# Fiche de candidature

## Votre établissement d'Enseignement Supérieur d'origine l'année de votre mobilité

**Veuillez verifier attentivement les informations ci-dessous.**

**En cas d'inexactitude vous devez impérativement le signaler au service de mobilité internationale de votre établissement en utilisant la rubrique modifications(s) souhaitée(s).**

**Les champs signalés avec une étoile * sont obligatoires.**
**Utilisez les boutons « *suivant* » et « *précédent* » du formulaire pour valider vos informations.**

| | |
|---|---|
| **Etablissement d'origine** * | Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitate |
| **Composante** * | UPV / EHU |
| **Champ disciplinaire** * | Arts |
| **Diplôme en cours de préparation** * | Grado blabla |
| **Niveau d'étude** * | Grado 4 |
| **Identifiant National de l'Etudiant (INE)** | |

Retour liste projets | Précédent | Suivant

## *Jatorrizko unibertsitatea mugikortasunaren ikasturtearen.*

*Mesedez, egiazta itzazu, arretaz, informazio hauek.*

*Okerrik bada, nahitaez eman beharko duzu horren berri zure unibertsitateko nazioarteko mugikortasunerako zerbitzuan, aldaketak egiteko atala erabiliz.*

*Asteriskoarekin markatutako eremuak nahitaez bete behar dira.*

*Formularioko "Suivant" botoia erabili, zure informazioak balioesteko, eta "Précédent," informazioak aldatzeko.*

*Jatorrizko unibertsitatea:*

*Zentroa:*

*Ikasketa-eremua:*

*Prestatzen ari zaren titulazioa:*

*Ikasketa-maila:*

*Ikaslearen Identifikazio Nazionala (IIN): Ez bete - frantsesentzat bakarrik*

- **Hurrengo orrian, harrera-unibertsitateari buruzko formularioa bete beharko duzu. Lehenengo zatia bakarrik bete behar da: Votre établissement/organisme d´accueil**


Vos projets pédagogiques > Fiche de candidature : Votre établissement / organisme d'accueil

Fiche de candidature

Votre établissement / organisme d'accueil

Pays * FRANCE

Etablissement ou organisme d'accueil * Veuillez choisir l'établissement d'accueil

Si votre établissement/organisme d'accueil ne figure pas dans cette liste, veuillez remplir les champs ci-dessous (merci de donner son nom exact) :

Nom * UNIVERSITE BORDEAUX MONTAIGNE

Adresse * ESPLANADE DES ANTILLES

Code Postal - Ville (étranger) * 33600 PESSAC

Responsable des Relations Internationales
(ou personne à contacter au sein de l'Etablissement/Organisme d'accueil) :

Nom | Prénom

Tél | Fax

Courriel

Région Nouvelle-Aquitaine | Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco | Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra | LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre | ComUE d'Aquitaine
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea | Mondragon Unibertsitatea | Deusto Universidad de Deusto University of Deusto | upna | Universidad de Navarra

*Eskaera-fitxa*

*Harrera-unibertsitatea/zentroa*

*Herrialdea: Frantzia*

*Harrera-unibertsitatea*

*Harrera-unibertsitatea/zentroa zerrendan agertzen ez bada, bete honako eremu hauek (izen zehatza eman):*

*Izena:*

*Helbidea:*

*Posta-kodea- Hiria: (jarri zuzenean hiria - posta-kodea  Frantzian bizilekua dutenek bakarrik bete behar dute)*

*Nazioarteko Harremanen Arduraduna (frantsesentzat bakarrik)*

*(harrera-unibertsitateko/zentroko kontaturako pertsona):*

*Abizenak eta izena:*

*Izena:*

*Telefonoa:*

*Faxa:*

*Posta elektronikoa:*

- **Hurrengo orrian, zure mugikortasunaren garapenari buruzko formularioa bete beharko duzu. Orri hau oso garrantzitsua da, espedientea aukeragarri bihurtzen baitu: data akademikoak bete behar dituzu (mugikortasun-hitzarmenean idatzita daude).**

Vos projets pédagogiques > **Fiche de candidature : Déroulement de votre mobilité**

## Fiche de candidature

### Déroulement de votre mobilité

**Titre ***
mobilidad academica de cinema
**(ex: Echange avec l'Université de Berkley, Etats-Unis)**

**Vos motivations ***
Esta oportunidade me permite de hablar una idioma latina, descobrir la tecnica cinematografica francès, mejorar el montaje audiovisual y participar a festivales de Aquitania.

**Dates de mobilité *** **Indiquez vos dates de mobilité telles qu'elles apparaissent sur votre contrat pédagogique ou votre convention de stage.**

**Date de début du séjour *** 01/09/2016 **(jj/mm/aaaa)**

**Date de fin du séjour *** 10/02/2017 **(jj/mm/aaaa)**

**Durée du séjour à l'étranger** 5.13 **mois, jours** 23.2 **semaines, jours**

**Type de Mobilité *** ○ **Stage** ◉ **Académique (stage en laboratoire inclus)**

**Mobilité en double-diplôme** ☐

**Gratification nette en euros par mois *** **€ (si vous n'avez pas d'indemnités, mettre zéro)**

Retour liste projets | Précédent | Suivant

## *Mugikortasunaren garapena*

*Izenburua: (adb., trukea Bordeleko Unibertsitatearekin)*

*Zure arrazoiak:*

*Mugikortasun-datak:*

*Egonaldiaren hasierako data: ee/hh/uuuu*

*Egonaldiaren bukaerako data: ee/hh/uuuu*

*Atzerriko egonaldiaren iraupena hilabete, egun aste, egun.*

*Mugikortasun mota: praktikoa akademikoa (aukeratu akademikoa, praktikoa ezin da beka honetan eskatu)*

*Titulazio bikoitzeko mugikortasuna:*

*Hileroko sari garbia: ("0" bakarrik jarri behar duzu)*

- **Zati hau bukatu eta gero, akitaniar ikasleei bakarrik dagokien orri bat agertuko da. Zuzenean egin klik botoi honetan:** Suivant


Fiche de candidature

Fenêtres de votre mobilité

Si vous souhaitez demander une aide financée par une politique spécifique, veuillez consulter la « brochure d'information sur les fenêtres AquiMob », téléchargeable dans la rubrique Aides à la mobilité, et remplir les champs suivants.

Attention :
Si votre projet correspond à plusieurs fenêtres, veuillez saisir toutes les fenêtres concernées.
Si aucune fenêtre n'est proposée, veuillez passer à l'étape suivante.

| | |
|---|---|
| Fenêtre de votre établissement | Aucune fenêtre correspondant à votre projet. |
| Fenêtre de la Communauté d'Universités et Etablissements d'Aquitaine | Aucune fenêtre correspondant à votre projet. |
| Fenêtre du Conseil Régional d'Aquitaine | Aucune fenêtre correspondant à votre projet. |

Retour liste projets | Précédent | Suivant

- **Hurrengo orria beti agertzen da. Nahitaezkoa da frantses ikasleentzat. Zuk hau egin behar duzu bakarrik: errentei buruzko laukitxoan "0" jarri, eta gizarte-kategorian, "*Étudiant*":**


Vos projets pédagogiques > Fiche de candidature : Vos données sociales étudiantes

Fiche de candidature

Vos données sociales étudiantes

Attention : Toute information, pour laquelle les pièces justificatives demandées ne seront pas jointes, ne sera pas prise en compte.

| | |
|---|---|
| Je suis étudiant boursier sur critères sociaux * | Oui Non |
| Echelon | Non boursier |
| Revenu brut global 2013 de votre foyer fiscal de rattachement ou exceptionnellement, celui de l'étudiant (cas de rupture familiale par exemple, sous condition de justificatif) * | 100 € Si votre revenu est négatif, mettre zéro. |
| Votre foyer fiscal est il domicilié en France ? * | Oui Non |
| Catégorie sociale et professionnelle de l'étudiant (pas celle des parents) * | * Etudiant * |
| J'ai déposé une demande de bourse sur critères sociaux, je suis en attente d'une réponse | |

DETAILS DES POINTS DE CHARGE

| Type des points de charges : | | Nombre de points correspondants : |
|---|---|---|
| I Critères personnels | | |
| Pupille de la nation ou bénéficiaire d'une protection particulière | | 0 |
| Handicapé ou besoin d'une personne tierce | | 0 |

*Eskaera-fitxa*

*Ikaslearen gizarte-datuak:*

*Adi: Ziurtagiriak eskatzen dituzten informazioak ez dira aintzat hartuko ziurtagiriak eskaerarekin batera eransten ez badira.*

*Gizarte-irizpideen arabera, ikasle bekaduna naiz: Bai- Ez (bakarrik frantsesentzat, aukeratu Ez)*

*2014ko errenta orokorra: (bakarrik frantsesentzat: idatzi 0)*

*Zure zerga-helbidea Frantzian dago? Bai - Ez (bakarrik frantsesentzat, aukeratu Ez)*

*Ikaslearen gizarte- eta lan-kategoria: aukeratu "Étudiant"*

*Gizarte-irizpideen araberako beka bat eskatu dut eta erantzunaren zain nago: (bakarrik frantsesentzat)*

*Karga-puntuen inguruko xehetasunak*

*Karga-puntuen motak: Zenbat puntu dagozkizun:*

*Irizpide pertsonalak:*

*1 Irizpide pertsonalak*

*Estatuak babestua edo babes berezi baten onuraduna (frantsesentzat bakarrik)*

*Desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsona*

- **Hurrengo orriko formularioa zure bankuko datuekin bete behar duzu:**

Vos projets pédagogiques > Fiche de candidature : Informations bancaires

Fiche de candidature

Informations bancaires

Indiquez ci-dessous les informations figurant sur le Relevé d'Identité bancaire correspondant au compte bancaire ou postal où devront être versées vos aides à la mobilité

Attention : Si vos coordonnées bancaires changent au cours de l'année de votre mobilité, veuillez en informez le service mobilité / relations internationales de votre établissement et leur transmettre un nouveau RIB.

Domiciliation bancaire (nom de la banque) *

Titulaire du compte (nom - prénom) *

Domiciliation bancaire en France ? * Oui Non

RIB: Code Banque | Code Guichet | Numéro Compte | Clé

BIC/SWIFT

IBAN

Retour liste projets | Précédent | Suivant

*Eskaera-fitxa*

*Banku-datuak*

*Behean idatzi beka jasotzeko erabili behar duzun kontuari buruzko banku-informazioak.*

*Adi: Zure banku-datuak aldatzen badira mugikortasun-aldian zehar, zure unibertsitateko mugikortasunerako/nazioarteko harremanetarako zerbitzuari eman beharko dizkiozu datu berriak.*

*Banku-helbideratzea:*

*(Bankuaren izena)*

*Kontuaren titularra:*

*(Abizenak- Izena)*

*Frantzian egin behar duzu banku-helbideratzea? Bai - Ez*

*RIB Banku-kodea Kutxazain-kodea Giltza-kontuaren zenbakia (Frantziako kontuetarako bakarrik)*

*o*

*BIC/SWIFT: (Espainiako kontuetarako)*

*IBAN: (Espainiako kontuetarako)*

- **Hurrengo orrialdean, zure eskaeraren laburpena aurkituko duzu: informazioa irakurri, besterik ez; markatu bi laukitxoak eta gorde zure datuak Enregistrer-en klik eginez.**

Vos projets pédagogiques > **Fiche de candidature : Votre engagement**

# Fiche de candidature

## Votre engagement

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Nom** | IÑÁRRITU-GONZALEZ | | |
| **Prénom** | Alejandro | | |
| **Nom de jeune fille** | | | |
| **Etablissement d'origine** | Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea | | |
| **Diplôme** | Grado blabla | | |
| **Etablissement d'accueil** | UNIVERSITE BORDEAUX MONTAIGNE | | |
| **Du** | 01/09/2016 | **Au** | 10/02/2017 |
| **Durée du séjour à l'étranger** | 5.13 **mois, jours soit** | | 23.20 **semaines, jours** |

L'étudiant signataire déclare, sous peine d'inéligibilité uniquement à l'aide régionale Aquitaine Cap Mobilité, ne pas appartenir à l'une des catégories suivantes :

1. agents titulaires et stagiaires des fonctions publiques même en disponibilité ou en congé sans traitement,
2. personnes inscrites à Pôle emploi comme demandeurs d'emploi ou bénéficiaires d'aides à l'insertion et/ou à la formation professionnelle,
3. personnes rémunérées sous contrat d'apprentissage ou de professionnalisation ou en congé de formation,
4. étudiants suivant des cours de mise à niveau linguistique dans un Etat étranger,
5. étudiants originaires des territoires d'outre-mer (TOM) pris en charge par le ministère de l'outre-mer,
6. étudiants bénéficiant ou ayant bénéficié d'un dispositif de soutien du Conseil Régional d'Aquitaine au titre d'un autre dispositif du règlement d'intervention du 25 juin 2007.
7. Attention : Si l'étudiant appartient à l'une de ces catégories, ne pas hésiter à contacter son établissement pour vérifier son éligibilité aux autres aides du dispositif.

Par ailleurs, il s'engage à rembourser totalement ou partiellement l'allocation perçue :

- s'il renonce ou interrompt sa mobilité (sauf en cas de force majeure),
- s'il ne satisfait pas aux exigences de son programme d'études / du stage,
- si les informations renseignées dans son dossier de demande d'aide à la mobilité son erronées ou partiellement erronées,
- si les dates de mobilité renseignées dans les attestations d'arrivée et retour révèlent une durée de mobilité inférieure à celle renseignée dans le dossier de demande d'aide (selon lesquelles la commission d'attribution a statué), auquel cas le nombre de mois d'aide sera recalculé.

A son arrivée, l'étudiant signataire s'engage à transmettre à son établissement d'origine l'attestation d'arrivée dans l'établissement / l'organisme d'accueil mentionnant la date de début des études / du stage.

A son retour, l'étudiant signataire s'engage à transmettre à son établissement d'origine l'attestation de fin de séjour, remplie par l'établissement / l'organisme d'accueil et mentionnant les dates de début et de fin de son séjour.

*Les informations recueillies font l'objet d'un traitement informatique destiné à l'instruction administrative et financière de votre demande de financement. Si votre dossier est retenu, vos données personnelles seront transmises aux organismes bailleurs et payeurs. Conformément à la loi « informatique et libertés » du 6 janvier 1978 modifiée en 2004, vous bénéficiez d'un droit d'accès et de rectification aux informations qui vous concernent, que vous pouvez exercer en vous adressant à contact@aquimob.fr.*

*Vous pouvez également, pour des motifs légitimes, vous opposer au transfert des données vous concernant.*

**Seule la version papier de ce document signée et reçue par votre établissement d'origine fera foi.**

**La liste des pièces requises et de celles téléchargeables sera indiquée après l'enregistrement de votre projet, dans la page suivante.**

☑ **Je certifie que les informations fournies sont exactes et certifie également avoir pris connaissance des conditions d'attribution des aides à la mobilité décrites dans la Brochure d'information AquiMob.**

☐ **J'accepte de recevoir par e-mail des informations, des invitations, ou des propositions liées à la mobilité internationale.**

Retour liste projets | Précédent | Enregistrer

*Eskaera-fitxa*

*Zure konpromisoa*

*Abizenak:*

*Izena*

*Ezkongabeko abizenak (frantsesentzat bakarrik)*

*Jatorrizko unibertsitatea*

*Titulazioa*

*Harrera-unibertsitatea*

*../../....(e)tik ../.. /...(a) arte.*

*Atzerriko egonaldiaren iraupena: .... hilabete, egun, edo .... aste, egun*

*Ikasle sinatzaileak adierazten du (...) gailuaren beste laguntzei (frantsesentzat bakarrik)*

*Ikasleak konpromisoa hartzen du honako kasu hauetan diru-laguntza osoa edo zati bat itzultzeko:*

- *uko egiten badu edo mugikortasuna eteten badu (ezinbesteak bultzatuta izan ezean)*
- *ikasketa/praktika-programaren eskakizunak betetzen ez baditu*
- *mugikortasun-bekaren eskaera-espedientean emandako informazioak okerrak edo partzialki okerrak badira*
- *haste- eta bukatze-ziurtagirietan emandako mugikortasun-datuek erakusten badute mugikortasunaren iraupena laguntzaren eskaera-espedientean zegoenaz (esleitze-batzordeak bere erabakia hartzeko erabili zuena) bestelakoa dela, berriz kalkulatuko da zenbat hilabetez laguntza eman.*

*Iristean, irakasle sinatzaileak konpromisoa hartzen du jatorrizko unibertsitateari harrera-unibertsitateko/zentroko bere iriste-ziurtagiria bidaltzeko, non ikasketen edo praktiken haste-eguna agertzen baita.*

*Irakasle sinatzaileak konpromisoa hartzen du itzultzean harrera-unibertsitateko/zentroko bukatze-ziurtagiria jatorrizko unibertsitateari bidaltzeko, non ikasketen edo praktiken haste-eguna eta bukatze-eguna agertzen baitira.*

*Bildutako informazioen tratamendu informatikoa egingo da, zure beka-eskaerari buruzko administrazio- eta finantza-izapideak egiteko. Espedientea onartzen bada, tartean dauden erakundeei (Euroeskualdea eta unibertsitateak) bidaliko zaizkie zure datu pertsonalak.*

*1978ko urtarrilaren 6ko "Informatika eta askatasuna"ri buruzko frantziar legearen arabera (2004an aldatua), baduzu eskubidea zuri dagozkizun datuetara sartzeko eta horiek aldatzeko, eta eskubide hori erabil daiteke mezu elektroniko bat honako helbide honetara bidaliz: contact@aquimob.fr. Bidezko arrazoiengatik, uko egin diezaiokezu zuri dagozkizun datuak transferitzeari.*

***Dokumentu honen paperezko bertsioak bakarrik –sinatua eta jatorrizko unibertsitateak jasoa– ematen du fede.***

***Proiektua gorde eta gero, hurrengo orrian eskatzen diren ziurtagirien zerrenda deskargatu ahal izango da.***

*Egiaztatzen dut emandako informazioak zuzenak direla. (eta, halaber, egiaztatzen dut badudala mugikortasun-bekaren esleitze-baldintzen berri dokumentuaren bidez - frantsesentzat bakarrik): laukitxoa markatu proiektua gorde ahal izateko.*

*Onartzen dut posta elektronikoaren bidez nazioarteko mugikortasunari buruzko informazioak, gonbidapenak edo proposamenak jasotzea.*

- **Proiektua gorde eta gero, baieztatzeko orria agertuko zaizu: kontu handiz irakurri behar duzu informazioa eta** Retour liste projets **-n klik egin proiektuen zerrendara bueltatzeko.**




Zure proiektua "**gordeta**" dago.

Emandako informazioak zuzenak badira, nahitaez "**soumettre**"-n klik eginez bidali behar duzu zure eskaera azter dezaten.

Espediente honen paperezko bertsio bat (**PDF formatuan deskarga daiteke**) bidali behar duzu, zure proiektua jatorrizko unibertsitatean aurkeztu eta gero, honako ziurtagiri hauekin batera:

-jatorrizko unibertsitatean matrikulatuta zaudela egiaztatzen duen dokumentua (matrikulazio-ziurtagiria, diploma edo noten ziurtagiria)

-banku-identitatearen ziurtagiri bat

-zure eskaera onartu bada: zure egonaldia hasten denean, harrera-unibertsitateak sinatutako iriste-ziurtagiria bidali jatorrizko unibertsitateari. **GARRANTZITSUA:** iriste-ziurtagiriak lehen ordainketa egitea ahalbidetzen du.

-zure eskaera onartu bada: zure egonaldia bukatzen denean, harrera-unibertsitateak sinatutako bukatze-ziurtagiria bidali jatorrizko unibertsitateari. **GARRANTZITSUA:** egonaldiaren bukatze-ziurtagiriak diru-laguntza guztia ordaintzea ahalbideratzen du.

## 3- ESPEDIENTEA BIDALTZEA:

- **Zure proiektua gorde eta gero, zure proiektuen zerrendara itzuliko zara automatikoki: bidali egin behar duzu "Soumettre"-en klik eginez.**


Déposer votre dossier > Vos projets pédagogiques

Vos projets pédagogiques

DOS SANTOS Sandrine — Kedge Business School

messagerie désactivée

| Priorité | Projet | N° | Etat * | Modifier | Supprimer | Soumettre | Imprimer | Classer vers le bas | Classer vers le haut |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | semestre académique | 1 | Enregistré | | | | | | |

* Enregistré : le projet est saisi
* Soumis : le projet est soumis pour validation
* Validé : le projet est validé par l'établissement
* Désisté : vous vous êtes désisté pour le projet

Vous pouvez soumettre **trois projets pédagogiques au maximum** pour un dossier unique de demande d'aide.
Un seul de vos projets sera pris en compte (le projet validé de priorité la plus haute).

Ajouter un nouveau projet AquiMob

Infos

*Zure proiektu pedagogikoak*

*Proiektuaren Lehentasuna Zk. Egoera Aldatu Kendu Bidali Inprimatu*

*1. Lauhilabeteko akademikoa 1 Gordeta*

**Gordeta: proiektua gordeta dago*

**Bidalita: proiektua bidalia da balioets dezaten*

**Balioetsita: unibertsitateak zure proiektua balioetsi du*

**Ukoa: proiektuari uko egin diozu*

***Gehienez ere, hiru proiektu pedagogiko** aurkez ditzakezu beka-eskaera bakoitzean. Hiru proiektuetako bat hartuko da kontuan (lehentasun handienekotzat jo den proiektua).*

- **Bidali eta gero, baieztatze-esaldi bat agertuko da lauki berde batean:**




*Zure proiektu pedagogikoak*

*1 zenbakidun proiektua bidali egin da.*

*Jakinarazpena egiteko mezu elektroniko bat bidali zaio zure unibertsitateko mugikortasun-arduradunari.*

- **Orain, "Imprimer"-en egin behar duzu klik, PDF formatuan dokumentu bat sor dadin. <u>Sinatu</u> eta gero, jatorrizko unibertsitateari postaz bidali, ziurtagiriekin batera. Zure unibertsitateko kudeatzaileak zure proiektua aztertu eta balioetsi eta gero, jakinarazpen automatiko bat jasoko duzu.**

- **Orain, batzordearen emaitza jaso arte itxoin beharko duzu. Irailean hartuko du erabakia.**

| ESKAERAREN ETAPAK | |
|---|---|
| **1. Etapa Konektatzea:** | Formulariora eramango nauen ikonoan klik egingo dut: |
| **2. Etapa: Identifikazioa** | Jatorrizko unibertsitatea hautatu eta nire burua identifikatuko dut.<br>• Nire izen-abizenak eta ikasle-zenbakia sartuko ditut<br>• Baita mugikortasun-kudeatzaileak eman didan unibertsitateko pasahitza ere. |
| **3. Etapa: Espedientearen datuak** | "ajouter un noveau dossier"-en klik egingo dut. Mugikortasun-proiektuaren eskaera-formulariora sartuko naiz. Orri bakoitzean, nahitaezkoak diren eremuak beteko ditut hurrengo orrira pasatu baino lehen. |
| **4. Etapa: Nire datuak gorde** | Formularioa bete eta gero, espedientea gordeko dut.<br>Formularioan eman dudan helbidean, jakinarazpen bat jasoko dut.<br>• Nire espedienteko erreferentziak adieraziko dizkit.<br>• Oroitu zure espedientea bidali behar duzula deialdia bukatu baino lehen. |
| **5. Etapa: Bidaltzea** | Nire espedientea gordeta dago eta:<br>Bukatu gabe dago:<br>• Oraindik alda dezaket.<br>Bukatuta dago:<br>• Bidal dezaket.<br>• Ezin izango dut aldaketarik egin.<br>"Soumettre" ikonoan klik egingo dut deialdia bukatu baino lehen. |
| **6. Etapa: Inprimatzea** | Nire espedientea PDF formatuan gordeko dut.<br>PDF dokumentuaren bukaeran, aurkeztu beharreko ziurtagiriak aurkituko ditut.<br>Inprimatu egingo dut eta ziurtagiriak erantsi.<br>Espedientea berrikusi eta sinatuko dut. |
| **7. Etapa: Unibertsitateari bidali** | Jatorrizko unibertsitateko Nazioarteko Harremanetarako zerbitzuari hauek bidali:<br>• Espedientea paperean, **beteta eta sinatuta**,<br>• **ziurtagiriekin** batera,<br>• **epea bukatu baino lehen**. |
| **8. Etapa: Espedientea Balioestea** | Nire unibertsitateko kudeatzaileak espedientea jasoko du: aztertu egingo du eta egiaztatuko du ongi beteta dagoela eta ziurtagiri guztiak daudela.<br>Bukatu gabe badago:<br>Dena ongi badago: |

<table>
<tr>
<td></td>
<td>• Kudeatzaileak mezu elektroniko bat bidaliko dit esanez zer ziurtagiri falta diren eta zer epe dudan bidaltzeko.<br>• Hala egiten ez badut, nire espedientea ezin izango da balioetsi eta hautatze-batzordeak ez du aztertuko.</td>
<td>• Kudeatzaileak balioets dezake.<br>• Aquimob espedientearen balioespenaren jakinarazpena jasoko dut: horrek esan nahi du hautatze-batzordeak nire espedientea aztertu ahal izango duela.</td>
</tr>
<tr>
<td>9. Etapa: Batzordearen azterketa</td>
<td colspan="2">Hautatze-batzordean, espediente guztiak aztertuko dira. Batzordeak eskura dauden funtsen arabera esleituko ditu laguntzak.</td>
</tr>
<tr>
<td>10. Etapa: Emaitzak jakinaraztea</td>
<td colspan="2">Hautaketa egin eta gero: jakinarazpen bat iritsiko zait, esanez laguntza jasoko dudan ala ez.</td>
</tr>
<tr>
<td>11. Etapa: Ordainketak</td>
<td colspan="2">Laguntza onartzen badidate:<br>• Hura jaso ahal izateko, lehenbailehen bidaliko dut haste-ziurtagiria nire jatorrizko unibertsitatera.<br>• Mugikortasun-aldia bukatzen dudanean, bukatze-ziurtagiria bidaliko dut laguntza kobratzeko.</td>
</tr>
</table>